

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Kontxita Beitia Oiarbide

*Donostia,
Gipuzkoa
(1940)*

Aurkibidea



Biografia



Erdia Pasai Antxo eta erdia Donostia den kale batean jaio zen, Eskalandegi kalean. Donostiarra da legez, baina Pasai Antxokoa sentitzen da, hantxe egiten baitzuen bizimodua. Goierrikoak zituen gurasoak, ama Idiazabalgoa eta aita ordiziarra. Gerran ihesi ibili zirenez, aitari lana ukatu zioten itzultzean. Pasai Antxoko Luzuriaga lantegian hasi zen, laborategian kimikari bezala. Bi senide ziren Kontxita-eta; aurretik jaiotako beste bi umetan hil ziren, bata gerra garaian, metrailak jota. Mojetan ikasi zuen Kontxitak, lehenengo herrian bertan eta gero Donostian, teresatarrekin. Gero Magisteritza egin zuen Ategorrietan. Giro erdaldunak bultzatuta, pixkanaka euskara baztertzen joan zen. Euskara berreskuratzeke Elbira Zipitriarengana jo zuen. Isilpeko ikastoletako andereño izateko prestatu zuen hark. 20 urterekin, ikastola jarri zuen Pasai Antxon, bere etxean, bost ikaslerekin. Donostiako Gros auzora ezkondu zen, eta han ere ikastola jarri zuen etxean, Zurriola izango zenaren hazia. Txalaparta jotzen, abesten eta dantzan ere ibili da. Psikologia ikasketak egin zituen gerora. Lau seme-alaba ditu.

Zintak

DON-041

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-21
- **Iraupena:** 110 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

DON-228

- **Proiektua:** Badiako ikastola txikiak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2025-03-21
- **Iraupena:** 106 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

DON-229

- **Proiektua:** Badiako ikastola txikiak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2025-03-21
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Pasai Antxon jaioa

- **Erref:** DON-041/002
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:00:28. **Bukatu:** 00:01:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Pasaia sentitzen da, administratiboki Donostian jaio arren. Gurasoak goierritarrak zituen.

2. Gerra garaian, familia ihesi

- **Erref:** DON-041/003
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:01:40. **Bukatu:** 00:05:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerraren ondorioz, Goierritik alde egin behar izan zuten gurasoek, abertzaleak baitziren, eta batetik bestera ibili ziren. Bergaran anaia galdu zuen bonbardaketa batean metrailak jota. Aitak CAFen zuen lanpostua galdu zuen Ordiziara itzultzean. Pasaian Luzuriaga lantegian laborategia martxan jartzeko lanpostua hartu zuen aitak, kimikaria baitzen.

3. Pasai Antxo, gerrak astindua

- **Erref:** DON-041/005
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:06:27. **Bukatu:** 00:08:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Pasaia herri apala zen, gerrak astindua. Herritar asko galtzaileak zirela nabari zen eta ez zuten hortaz hitz egiten. Bere etxean beti hitz egin izan da politikaz. Etxe apala zen.

4. Gerra ostean mugimendu industrial

- **Erref:** DON-041/006
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:08:55. **Bukatu:** 00:13:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Boom industrial
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Luzuriaga lantegiak bizitasun handia ematen zion herriari. Langile asko ziren eta giroa sortzen zen herrian. Gerra ostean mugimendu industrial handia sortu zen. Aurretik, miseria zegoen herrian.

5. Luzuriaga galdategi garrantzitsua

- **Erref:** DON-041/007
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:13:02. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Luzuriaga lantegia galdategi garrantzitsua zen. Bere aitak laborategian materiala aztertzen zuen, baita Bilbo inguruko meategietara joan ere. Kamioiekin ekartzen zuten lehengaia.

6. Emakumeak Luzuriagako laborategian

- **Erref:** DON-041/008
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:15:50. **Bukatu:** 00:19:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeak pixkanaka hasi ziren lanean Luzuriagan. Laborategian ere aritzen ziren. Anekdotak bat kontatzen du. Batzuek ezkondukoan lana utzi behar izaten zuten.

7. Emakumeak Luzuriagan lanean

- **Erref:** DON-041/009
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:19:40. **Bukatu:** 00:21:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Emakumeak bulegoetan eta lan gogorrangoetan ere hasi ziren Luzuriagan.

8. Eskolan mojetan

- **Erref:** DON-041/010
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:21:11. **Bukatu:** 00:22:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Mojen eskolan ikasi zuen, etxe ondoan. Lau urterekin hasi zen eta erdaraz ikasten zuten, baina ez zuen euskararekiko jazarpenik izan.

9. Donostian eskolan hasita, euskara galdu

- **Erref:** DON-041/011
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:22:57. **Bukatu:** 00:25:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Hamar urterekin Donostiara joan zen teresatarren ikastetxera. Urte latzak izan ziren beretzat Donostiako haiek. "Correo" izeneko tren motel batean joan behar izaten zuen goizean goiz. Familiarekin denbora gutxi igarotzen zuen garai hartan eta euskara erabat galdu zuen.

10. Euskararekiko gorrotoa Donostiako ikastetxean

- **Erref:** DON-041/012
- **Iraupena:** 0:04:57. **Hasi:** 00:25:35. **Bukatu:** 00:30:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Donostiako ikastetxean euskararekiko gorrotoa nabaritzen zuen. Ez zuten sekula zigortu euskaraz egiteagatik baina esaten zutenak, irakasleek eta ikaskideek, eragin handia izan zuen beregan.

11. Euskara baztertu eta berreskuratu

- **Erref:** DON-041/013
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:30:32. **Bukatu:** 00:33:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Euskara baztertuz joan zen giroak baldintzatuta. Ikaskide gehiagok ere bizipen bera izan zutela jakin izan du gerora.

12. Magisteritza Ategorrietan

- **Erref:** DON-041/014
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:33:45. **Bukatu:** 00:36:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Garai hartan neskek zerbait ikasteko aukera bakarra magisteritza zen. Berezkoa ere bazuen berak. Ategorrietan ikasi zuen, dena erdaraz. Ia denak neskak izaten ziren.

13. Magisteritza eskolan erlijioaren eragina

- **Erref:** DON-041/015
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:36:20. **Bukatu:** 00:39:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Magisteritza eskolan erlijioa oso sartuta zegoen, publikoa izan arren. Egunero goizean goiz Arantzazuko Ama Birjinaren ereserkia abesten zuten eta otoitz egin. Eskolako zuzendaria dohai handiko emakumea zen.</p>

14. Magisteritza bukatu eta oposaketak

- **Erref:** DON-041/016
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:39:20. **Bukatu:** 00:42:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Magisteritza hiru urtekoa zen eta gero errebalida izaten zuten. Hamazazpi urterekin irakasle ziren. Jesusa Agirrebengoa izeneko irakaslearekin prestatu zituen oposaketak, inguruko jende askorekin batera.

15. Elbira Zipitriarekin

- **Erref:** DON-041/017
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:42:08. **Bukatu:** 00:45:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Jesusa Agirrebengoarekin prestatu zituen oposaketak. Euskara berreskuratu behar zuela esan zion eta haren lankide baten bitartez, Elbira Zipitriarengana joan zen amarekin. Hark animatu zuen Pasaian ikastola jartzera. Berarekin euskara berreskuratu eta metodologian sakontzeko aukera izan zuen.

16. Elbira Zipitriarekin euskara ikasten eta praktketan

- **Erref:** DON-041/018
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:45:55. **Bukatu:** 00:47:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Gauetz gramatika ikastera joaten zen Zipitriarengana eta zeharo abertzaletu zuen. Euskararen aberastasun gramatikalak liluratu zuen, mundu bat ireki zitzaion. Hurrengo urte bietan praktikak egin zituen berarekin.

17. Zipitriaren metodologia berria

- **Erref:** DON-041/019
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:47:56. **Bukatu:** 00:52:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Hizkuntza irakasteko metodologia eta orokorrean hezkuntza metodologia bereziak sortu zituen. Kultura handia eta lagun esanguratsuak zituen: Orixe, Barandiaran... Frantziako pedagogiatik edan zuela uste du Kontxidak.

18. Zipitria beti isilpean lanean

- **Erref:** DON-041/020
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:52:01. **Bukatu:** 00:55:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Elbiraren pedagogia erabat parte hartzailea zen, aktiboa. Ez da gaingitu oraindik pedagogia hura, Kontxitaren ustez. Elbirak ez zuen irudikatzen gaur egungo ikastolen egoera, isilpean aritzearen beldurrak eraginda uste du Kontxidak.

19. Zipitria eta euskara batua

- **Erref:** DON-041/021
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:55:33. **Bukatu:** 00:59:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Elbirari izugarritzko mina sortu zitzaion euskara batuaren aferak. Galbidean ikusten zuen euskara eta ez zuen etorkizuna ikusten. Kontxitaren ustez, orain ikusi da bateragarriak direla euskalkia eta batua.

20. Bost ikaslerekin ikastola martxan

- **Erref:** DON-041/022
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:59:42. **Bukatu:** 01:02:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Bost ikaslerekin hasi zen. Bi orduko ikastaldia egiten zuten eta etxerako lan asko izaten zituzten. Oso talde txikiak ziren, jolaslekurik ez... Gizartea euskararen oso kontra zegoen. Apustu handia egin zuten gurasoek zein irakasleek.

21. Ama eta irakasleen arteko harreman sakona

- **Erref:** DON-041/023
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:02:37. **Bukatu:** 01:04:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Lehenengo bost ikasleen izenak aipatzen ditu. 4-5 urterekin hasi eta 9 urte arte jarraitzen zuten. Hor amek izan zuten papera nabarmentzen du. Harreman sakona zuten andereñoek ama haiekin.

22. Txotxekin ikasteko metodoa

- **Erref:** DON-041/024
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:04:43. **Bukatu:** 01:06:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Txotxekin ikasteko metodoa azaltzen du. Hizkiak eta zenbakiak idazten ikasteko erabiltzen zuten. Arbela, txotxak, pottokak (kanikak), Xabiartxo liburua eta blok zuri bat ziren erabiltzen zuten materiala.

23. Manipulazioa eta arrazonamendua pedagogiaren oinarri

- **Erref:** DON-041/025
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 01:06:28. **Bukatu:** 01:10:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Matematiketarako txotxak eta pottokak (kanikak) erabiltzen zituzten. Manipulazioa eta arrazonamendua ziren oinarriak. Kantuak, elkartrukeak egiten zituzten eta horrelaxe ikasiz joaten ziren.

24. Xabiartxo liburua

- **Erref:** DON-041/026
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:10:16. **Bukatu:** 01:12:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Xabiertxo liburua oinarri. Pixkaka sakonduz eta gehiago erabiliz joaten ziren. Talde eta leku aldaketa izaten ziren zailena ikasleentzat. Astean behin mendira joaten ziren. Jaialdiak beti etxe barruan egiten zituzten.

25. Ikastolenganako jazarpen poliziala

- **Erref:** DON-041/027
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:12:13. **Bukatu:** 01:13:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Isilpean ibili behar izaten zuten eta kontrolak izaten ziren. Berarengana ez ziren joan, ezta Gipuzkoako gehienengana ere, baina Bizkaian asko sufritu zuten poliziaren jazarpena.

26. Euskal Elizaren laguntza

- **Erref:** DON-041/028
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 01:13:42. **Bukatu:** 01:16:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Ikastolak hasi ziren herrietako eskola publikoetako irakasleak alde izan zituzten gehienetan. Euskal Elizaren laguntza handia izan zuten ikastolek.

27. Grosen ere ikastola etxean

- **Erref:** DON-041/029
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:16:50. **Bukatu:** 01:19:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Pasai Antxon eta Donostiako Gros auzoan ipini zuen ikastola bere etxean. 1964an hasi ziren 3 urtekoak sartzen eta urte hartan bere lagun batek hartu zuen lekukoa. Donostiako Gros auzora etorri zen bizitzera ezkondu zenean eta han ere ikastola jarri zuen etxean. Bi urteren ostean, ikastetxea sortzeko bidean jarri zuten eta 1968an lokal batean martxan jarri zuten Zurriola ikastola.

28. Ama euskaldunen bila ikastolarako

- **Erref:** DON-041/030
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 01:19:28. **Bukatu:** 01:22:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Kalean topatzen zituzten ama euskaldunei proiektuaren berri ematen zieten eta horrela hasi ziren. Ilusioa eta gogoia zegoen garai hartan zerbait berria egiteko. Grosen hamar ikaslerekin hasi zen, klase partikularrak ziren itxurapean.

29. Kantua euskara aberasteko

- **Erref:** DON-041/031
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 01:22:02. **Bukatu:** 01:25:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Elbirarekin Urgulera joaten zirenean, jolasen bitartez irakaspenak ematen zizkieten ikasleei. Asko abesten zuen Zipitriak, horrela euskara asko landu zitekeela uste zuelako. Don Nemesio Etxanizek ere parte hartzen zuen kantuak erakusten.

30. Kantua euskararekiko atxikimenduarentzat garrantzitsu

- **Erref:** DON-041/032
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 01:25:25. **Bukatu:** 01:27:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Euskararen zaletasuna handitzeko kantua tresna egokia izan da berarentzat ikasleekin lantzeko, gozamina euskararekin lotzea lortzen duelako. Euskara irakasgai arrunt bilakatu da askotan eta pena hartzen du horregatik.

31. Idiazabalen euskara hobetzen

- **Erref:** DON-041/033
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 01:27:08. **Bukatu:** 01:30:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Euskara berreskuratzeko prozesuan, Idiazabalera joan zen hango familiarekin

ikastera hilabetez. Garoa liburua irakurtzeko gomendatu zion Elbirak eta bi aldiz irakurri zuen, lehenengoan hiztegiarekin.

32. Ikastolen mugimenduaren onarpen zabala

- **Erref:** DON-041/034
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:30:05. **Bukatu:** 01:31:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Frankismoaren aurka zeudenek sinisten zuten ikastolak sortzea beharrezkoa zela eta inguruan onarpena zabalduz joan zen. Estatuak esku hartu nahi izan zuenerako, ikastolen mugimendua eratua, zabaldua eta onartua zegoen.

33. Ikastolen mugimenduaren zabaltzea

- **Erref:** DON-041/035
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:31:55. **Bukatu:** 01:33:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

1960 arte, sei bat andereño ziren; 1965erako dexente zabaldu zen eta 1965etik 1972ra sarea zabaldua zegoen herri askotara. Hortik aurrera, ikastolen historia modernoa hasten da.

34. Publikazioak, garai gogorra

- **Erref:** DON-041/036
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 01:33:19. **Bukatu:** 01:35:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

1993an publiko-pribatu eztabaida sortu zen ikastolen baitan. Garai gogorra izan zen.

35. Euskararekiko mespretxua oroitzapen gogorrena

- **Erref:** DON-041/037
- **Iraupena:** 0:04:31. **Hasi:** 01:35:02. **Bukatu:** 01:39:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Hasierako urteetako oroitzapenik gogorrena euskararekiko zegoen mespretxua da. Ikastolako ikasleen aita batzuen atxiloketak ere gogorrak izan ziren. Ikastolen mugimenduak ez dauka atzera bueltarik Kontxitarren ustez.

36. Dantzazalea eta kantuzalea

- **Erref:** DON-041/038
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 01:39:33. **Bukatu:** 01:42:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Dantza eta kantua zaletasun izan ditu. Irakasle izanik, ahotsa urratuta izan du ia beti. Hondartzazalea da, bainatzea gustuko du. Mendia ere bai.

37. Gene Yurre dantza irakasle ikastolan

- **Erref:** DON-041/039
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:42:02. **Bukatu:** 01:44:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Zurriola ikastolan gurasoentzat antolatzen zituzten ikastaroetan ikasi zuen dantzan. Gene Yurre izaten zuten irakasle, Kresala dantza taldearen sortzailea eta mundu zabalean dantzan aritua. Plaza dantzak jende askori erakutsi dizkio.

38. Psikologia ikasketak

- **Erref:** DON-041/040
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 01:44:08. **Bukatu:** 01:47:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Seme-alabak jaio zirenean, ikastola utzi zuen hamar urtez eta psikologia ikasketak egin zituen berrogei urterekin. Segituan haurdun gelditu zen berriz, laugarrenarekin.

39. Hasierako garaien onarpenaren borroka

- **Erref:** DON-041/041
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 01:47:07. **Bukatu:** 01:50:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Erretiroa hartu zuenean, kotizatu gabeko urte haiek kontuan izateko borroka egin behar izan zuen, beste batzuekin batera.

40. Pasaian oso euskara gutxi egiten zen

- **Erref:** DON-228/004
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:01:42. **Bukatu:** 00:04:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Eskolara etxe pareko mojetara joan zen. Hasi zenean, ez zekien euskaraz eta lagunak egitea kostatu zitzaion. Pasaian oso euskara gutxi egiten zen.

41. Donostiako Miguel Muñoa ikastolak

- **Erref:** DON-228/006
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:04:39. **Bukatu:** 00:06:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Gerra aurreko Miguel Muñoaren Donostiako lehenengo ikastolak. Ikasle asko zituzten eta Errepublika garaian oparoa izan zen ikastola. Gerrarekin, irakasle askok ihes egin zuten eta ikastolako haur asko eraman zituzten beraiekin.

42. Hezkuntzan, euskara guztiz debekatuta

- **Erref:** DON-228/007
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:06:45. **Bukatu:** 00:10:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Pasaian, baserritarrak eta bizpahiru kaleko familia bakarrik hitz egiten zuten euskaraz. Eskolan, gainontzeko neskek izeka egiten zioten gaztelaniaz gaizki hitz egiteagatik. 10 urterekin institutuan hasi zen eta hor bai, mojek aurka egiten zioten euskaraz egiteagatik. Gerora jakin zuen haiek ere euskaldunak zirela eta aginduak betetzen zituztela soilik. Euskara asko galdu zuen Kontxitik garai hartan.

43. Juan de Bilbao kaleko ikastola eta Elbira Zipitria

- **Erref:** DON-228/009
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:11:24. **Bukatu:** 00:13:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Miguel Muñoaren ikastolan hasi zen Elbira Zipitria lanean, Juan de Bilbao kalean. Muñoak, Kanpandegi kalean eraikin handi bat zeukan eta bertan ikastola bazegoen ere, hiritik zehar ere ikastolen lokalak eta gelak zeuden.

44. Elbira Zipitria, J.M. Barandiaran eta Orixeren harremana

- **Erref:** DON-228/011
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:13:37. **Bukatu:** 00:17:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia

Laburpena:

Elbira Zipitriak, Donibane Lohitzunera ihes egin zuen gerra hastean. Ramon Labayenen familiarekin bizi izan zen Saran, eta bertan ikastola bat sortu zuen. Jose Miguel Barandiaran eta Orixe bertan egon ziren ere. Hirurek oso harreman estua egin zuten.

45. Elbira Zipitria, Arriolatarren haurrei erakusten

- **Erref:** DON-228/013
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:19:32. **Bukatu:** 00:22:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

1942an, Elbira Zipitria Donostiara bueltatu zen eta Arriola medikuaren etxera. Etxeko haurrei eskolak ematen hasi zen eta Frantzian ikasitako pedagogia eta metodologia batzuk aplikatzen hasi zen. Haur gehiago ere joaten zitzaizkion.

46. Elbira Zipitriaren lehenengo ikastola

- **Erref:** DON-228/014
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:22:29. **Bukatu:** 00:25:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

1949-1950ean, Elbira Zipitria bere etxera bueltatu zen (Fermin Calbeton 26) eta bertan sortu zuen lehenengo ikastola. Ikasgelan, ohe bat ere bazegoen, bertan lan eta lo egiten zuelako Elbirak, eta geroago Kontxidak ere. Ikasgelak nolakoak ziren eta nola antolatzen ziren.

47. Elbira Zipitriaren ikasleen perfila

- **Erref:** DON-228/015
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:25:39. **Bukatu:** 00:27:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Elbira Zipitriaren haur taldeak hamarnaka biltzen ziren, euskaldunak izan behar ziren eta 5-9 urte bitartekoak izan.

48. Euskara ezin zela ikasi esaten zieten mojek

- **Erref:** DON-228/016
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:27:48. **Bukatu:** 00:29:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Kontxidak euskara ia ahaztu zuen. Eskolan, euskara dialektu bat zela eta gramatikarik ez zeukaez ezin zela ikasi esaten zieten mojek.

49. Pasaian ikastola sortzeko proposamena

- **Erref:** DON-228/019
- **Iraupena:** 0:05:49. **Hasi:** 00:30:25. **Bukatu:** 00:36:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikasketak bukatu zituenean, akademia bat zeukan Pasaiaiko Evaristo Urtasunek, herrian ikastola bat zabaltzeko proposamena egin zion. Horretarako, baina, euskaraz jakin behar zuen eta Kontxidak ahaztuta zeukan. Ikastola, Donostiako Alde Zaharrean bakarrik zegoen.

50. Elbira Zipitria ezagutu zuenean

- **Erref:** DON-228/021
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:36:20. **Bukatu:** 00:41:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Herriko akademiako irakasleak, Kontxitarren aitari esan zion ea zergatik Kontxitak ez zuen Pasaian ikastola bat sortzen. Elbira Zipitriarengana joan zen eta honek esan zion bi urtetan euskara galdu bazuen, beste bi urte beharko zituela berreskuratzeko. Landibarren liburu bat utzi zion Elbirak eta horrek bere abertzaletasuna piztu zuen.

51. Elbira Zipitriarekin euskaraz alfabetatzen eta praktikak egiten

- **Erref:** DON-228/022
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:41:35. **Bukatu:** 00:43:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Elbira Zipitriarekin urte batez euskara ikasten egon zen. Bigarren urtean, magisteritzako praktikak ere egin zituen berarekin. Barandiaran eta Orixe ezagutu zituen eta Urruñara joaten ziren bertso-txapelketara.

52. Ibira Zipitriarekin formatu ziren lehenengo irakasleak

- **Erref:** DON-228/023
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:43:55. **Bukatu:** 00:45:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Karmele Esnal, Jone Forkada eta Maria Carmen Mitxelena izan ziren Elbira Zipitriarekin ikasi zuten lehenengo irakasleak.

53. Mixel Labeguerie-ren "Gu gara Euskadiko" kanta primizian entzuten

- **Erref:** DON-228/024
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:45:08. **Bukatu:** 00:46:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Elbira Zipitriarekin, Urruñako bertso egunera joaten ziren berarekin formatutako maistrak. Bertan bertsolari onenak ezagutu zituzten. Mixel

Labeguerie-ren "Gu gira Euskadiko" abestia estreinako aldiz entzun zuten bertan.

54. Debekatutako disko eta liburuak non erosten ziren

- **Erref:** DON-228/025
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:46:33. **Bukatu:** 00:47:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Disko eta liburu debekatuak erostera, Bilintx liburudendara eta Garibai kaleko zapataadenda batera joaten ziren. "Elbiraren partez gatoz" esaten zuten eta satora eramaten zituzten liburuak erosteko.

55. Xabiertxo, ikastolaren oinarrizko liburua

- **Erref:** DON-228/028
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:48:58. **Bukatu:** 00:50:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Xabiertxo zen ikastolan erabiltzen zuten gida-liburua. Bertan zeuden gai guztiak jorratzen zituzten, nahiz eta gero beste liburu batzuk erabili eduki gehiago sortzeko.

56. Pasaiaiko ikastolako lehenengo ikasleak

- **Erref:** DON-228/030
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:51:38. **Bukatu:** 00:55:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Kontxitik lehenengo ikastola nola sortu zuen Pasaian eta nondik lortu zituen lehenengo ikasleak. Hamar haur baldin bazeuden klaseak jasotzen eta bi ordu baino gutxiagoko klaseak baziren, klase partikular bezala kontsideratzen ziren.

57. Irakasle-titulua izatea, garrantzi handikoa

- **Erref:** DON-228/031
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:55:30. **Bukatu:** 00:57:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Abertzale asko zeuden Donostian, ihes egin ez zutenek ere, eta guzti horiek asko lagundu zioten Elbira Zipitriari. Elbirak, garrantzi handia ematen zion irakasleek titulu ofiziala izateari.

58. Ikastola berriak sortzeko, Elbira Zipitriari laguntza eskatzen

- **Erref:** DON-228/032
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:57:38. **Bukatu:** 00:59:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Hasierako ikastolako lehenengo irakasleak Donostiako Alde Zaharrean biltzen ziren. Kontxita zen bakarra beste herri batean zegoena. Inguruko herriek ikastola sortu nahi bazuten, Elbira Zipitriarengana jotzen zuten laguntza eske.

59. Franco-ren egunean inauguratu zen ikastola

- **Erref:** DON-228/033
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:59:18. **Bukatu:** 01:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Garai bateko Iparragirre 14 kalean sortu zuen Kontxitik Pasaiako lehenengo ikastola, 1960an. Francoren egunean "Día del Caudillo" eman zuen lehenengo klasea. Xabier Urtasun, Fermin Pariza, Arrate Olaskoaga, Jose Miguel Zabala eta Iñaki Esnal izan ziren bere lehenengo ikasleak. Herrerako haiserako ikastola ere, etxebizitza partikular batean izan zen.

60. Geroz eta ikasle gehiago ikastoletan

- **Erref:** DON-228/035
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 01:03:49. **Bukatu:** 01:07:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Pasaian ikastola sortu zuenean, bere logelan ematen zituen klaseak. Hamarreko bi talde zituen goizean, eta arratsaldean Donostiara joaten zen Elbira Zipitriaren beste talde bati klaseak ematera. Pasaian ume gehiago ikastolara joaten hasi zirenean, berarekin praktiketan hasi zen Nekane Auzmendi.

61. Tolosako Santa Luzia eskolan lortu zuen plaza

- **Erref:** DON-228/037
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:07:38. **Bukatu:** 01:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Eskola publikora oposaketetan, Tolosako Santa Luzia tokatu zitzaion. Berak Pasaiaiko ikastolan jarraitu nahi zuenez, eszedentzia eskatu zuen. Hala ere, Tolosako ikasle horiekin pasatako 15 egunak oso gogoan ditu.

62. Nekane Auzmendiren ikastola Pasaian

- **Erref:** DON-228/040
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 01:11:14. **Bukatu:** 01:13:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Nekane Auzmendik, etxe bat erosi zuen bere izebarekin bizitzeko, eta bertako gela handiengan jarri zuen ikastola. Errendegi kalean zegoen.

63. Hizkuntza-integrazioa nola egin lehenengo ikastoletan

- **Erref:** DON-228/041
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 01:13:47. **Bukatu:** 01:14:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Industrializazioarengatik, etorkinak heltzen hasi zirenean eta haien seme-alabak ikastolara eramaten hasi zirenean, irakasle talde bat Catalunya joan zen, bertan hizkuntzaren murgilketa nola egiten zuten ikastera.

64. Hasierako ikastolen metodologia

- **Erref:** DON-228/042
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 01:14:41. **Bukatu:** 01:18:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

1965ean atera zuten lehenengo Olentzero. Nemessio Etxaniz, Elbira Zipitriarengana joaten zen haren kanta erakustera. Gero, Elbirak, beste andereñoi erakusten zien. Ostegunero, mendira joaten ziren. Naturari garrantzi handia ematen zitzaion. Ibaia ikustera joaten ziren, mareak aztertzerara... Urtean behin, Urgullera joaten ziren eta Elbirak Zipitriak ematen zien klasea Pasaiaiko haurrei.

65. Denak zeuden prest ikastolei laguntzeko

- **Erref:** DON-228/043
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 01:18:47. **Bukatu:** 01:23:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikasturte bukaeran, Arantzazura eramaten zituen ikasle guztiak, haiek guraso, anai-arreba, aiton-amonekin.. Oporrak uztailaren 15ean hasten ziren. Laguntza handia lortu zuten leku guztietan ikastolako andereñoek. Herriko abesbatza, dantza-taldea, jailetako taldeak... denak zeuden prest ikastolari laguntzeko. Amak, baserritarrak animatzen zituen Kontxitarengana joateko ere.

66. Geografia bertatik irakasten zuten

- **Erref:** DON-228/044
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:23:08. **Bukatu:** 01:24:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Buruz ikastearen metodologia alboratu nahi zuten lehenengo andereñoek. Geografia bertatik irakasten zuten.

67. Jaunartzea euskaraz

- **Erref:** DON-228/045
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 01:24:54. **Bukatu:** 01:28:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Ikastola sortu zuenean, Pasaiaiko abadearengana joan zen hitz egitera. Esan zion, berak emango ziela dotrina euskaraz eta jaunartzea euskaraz hartuko zutela. Abadea oso pozik jarri zen. Geroztik, urtean pare bat aldiz apaiz batzuk joaten ziren ikastolara, Santo Tomasetan eta Gabonetan.

68. Jaunartzea euskaldunak, abertzaleen topaketa politikoak

- **Erref:** DON-228/046
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 01:28:27. **Bukatu:** 01:32:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Jaunartzeak, ekitalde politikoak izaten ziren. Andereño bakoitzak bere ikasleekin egiten zuen jaunartzea, euskaraz. Gero, andereño guztiak elkartzen ziren Kalifornia kafetegian, brioche bat jateko. Pasaiko lehenengo euskarazko jaunartzea 1962an ospatu zen. Irakasteko metodologia urtetan mantendu egin zen, ikastolak publikiak zirenean ere. Jaunartze euskaldun haietara inguruko herriko jendea hurbiltzen zen. Abertzaleen topaketa bat bezalakoak ziren.

69. Ikastolako ikasleak, oso prestatuak

- **Erref:** DON-228/047
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 01:32:14. **Bukatu:** 01:34:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

1968. urtera arte, ikastola klandestinoak izan zen eta haurrak klase-partikularretara joaten zirela esaten zuten gurasoek. Salaketaren bat edo beste izan zuten. Haurrak oso prestatuak irtetzen ziren. Liburuak.

70. Eskolaratze-txartela

- **Erref:** DON-228/048
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 01:34:45. **Bukatu:** 01:37:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Eskolaratze-txartela behar zuten ikastolako ikasleek, titulua lortzeko. Ofizialak ziren eskoletan matrikulatzen zituzten, nahiz eta gero ikastolan ikasi. Ikastetxeen arteko laguntza. Ikastolako ikasketak amaituta, ikasleak nora ikastera joaten ziren: jesuitak, lizeoak...

71. Ikastolak hazten joan zirenean

- **Erref:** DON-228/049
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:37:40. **Bukatu:** 01:39:37

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikastolak hazten joan ziren eta herri guztietan sortzen hasi ziren. Pasaian, ikastola ezberdinak elkartu egin ziren. Lezo-Pasaia lizeoa.

72. Pasaia badiako lehenengo ikastolako andereñoa

- **Erref:** DON-228/050
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:39:37. **Bukatu:** 01:41:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Pasaia badiako lehenengo ikastolako andereñoa izan zen Kontxita. Bilboko bi andereñoen kasua kontatzen du. Atxilotu egin zituzten.

73. Ikastolako andereñoen egoitza, Donostian

- **Erref:** DON-228/051
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:41:22. **Bukatu:** 01:43:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

"Andereñoen egoitza" jarri zen Donostian, beste herrietatik Elbira Zipitriarekin eta haren ondorengo andereñoekin formatzera. Egoitzan bizi ziren denak eta praktikak, inguruko ikastola ireki berrietan egiten zituzten. Kontxita, bertara joaten zen euskara irakastera.

74. Matematikaren metodologia, hasierako ikastoletan

- **Erref:** DON-229/002
- **Iraupena:** 0:05:06. **Hasi:** 00:00:12. **Bukatu:** 00:05:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

Ikastolak bi ordu bakarrik irauten zuenez, etxerako lanak oso garrantzitsuak izaten ziren. Zatiketak egiteko metodologia berezi bat zuten, eta ama askok telefonoz deitzen zioten nola egin behar zen azaltzeko. Amen papera funtsezkoa izan zen. Jokoei ikasten zuten eta 5 urteko ikasleek zatiketak egiten zituzten.

75. Ikastolak sortutako kantuak; Danborrada

- **Erref:** DON-229/003
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:05:18. **Bukatu:** 00:08:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

"Etxe poxpola" abestia. Irakasteko metodologiaren oinarrietako bat, kantak ziren. Elbira Zipitriak sortzen zituen eta laguntza behar bazuen, Nemesio Etxaniz-i eskatzen zion. Danborrada ikastolan.

76. 1963tik aurrera hasi zen ikastolen giroa zabaltzen

- **Erref:** DON-229/004
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:08:23. **Bukatu:** 00:10:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Nekane Auzmendi andereñoa Idiazabalen ezagutu zuen eta oso lagunak egin ziren. 1963. urtetik aurrera hasi zen ikastolen giroa gehiago plazaratzen, ikasle kopurua handitzen... Ordura arte, Kontxitak ez zien bere lagunei kontatu zertan egiten zuen lan.

77. Ikastolen publikazioa

- **Erref:** DON-229/005
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:10:37. **Bukatu:** 00:13:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikastolen publikazioari buruz hausnarketa egiten du Kontxitak.

78. Eskola nazionalak, ikastolaren alde

- **Erref:** DON-229/006
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:13:09. **Bukatu:** 00:15:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Pasaiaiko eskolen arteko harremana. Eskola nazionaletan, ikastolaren aldeko publizitatea egiten zuten. Nekane Auzmendik, salaketa bat jaso zuen, eskola nazionala utzi zuelako ikastolan lan egiteagatik.

79. Andereñoen antzerki eguna, Donostian

- **Erref:** DON-229/008
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:16:16. **Bukatu:** 00:17:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikastola ezberdinetakoak jaunartzeetan, Urruñako bertso-egunean eta antzerki-egunetan biltzen ziren. Antzoki zaharrean biltzen ziren eta andereñek bakarrik hartzen zuten parte.

80. 15 haurrentzat, 17 praktikako andereño

- **Erref:** DON-229/009
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:17:49. **Bukatu:** 00:20:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Praktikako andereño asko zeuden garai batean. Zurriolan, 15 haurrentzat 17 praktikako andereño zeudela gogoratzen du. Lezo-Pasaia lizeoa sortu zuenean, berak ez zituen bertako andereñoak ezagutzen, Donostian lan egiten zuelako. Karmele Esnal Oreretako ikastolako andereñoarekin harreman handia izan zuen.

81. Kotizazioa lortzeko borroka I

- **Erref:** DON-229/011
- **Iraupena:** 0:07:41. **Hasi:** 00:21:04. **Bukatu:** 00:28:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Hasierako ikastolako andereñoek ez zuten kotizatzen. Erretiroa hartu baino urte batzuk lehenago, eskola publikoan lanean hasi zen, pentsio txiki bat izateko. Hamahiru urtez ibili ziren kotizazio hori eskatzen, alderdi politiko guztiekin hitz egiten, Eusko Jaurilaritzarekin...

82. Kotizazioa lortzeko borroka II

- **Erref:** DON-229/012

- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:28:45. **Bukatu:** 00:31:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Andereño bezala lan egindako urteak gizarte segurantzaz sartzeko, borroka handia egin behar izan zuten. Lau andereño ibili ziren hortan: Karmele Esnal, Nekane Auzmendi, Itziar Arzelus eta Kontxita Beitia. Gero, Ikastolaren Federazioaren esku utzi zuten.

83. Euskararekiko eta euskaldunekiko mespretxua

- **Erref:** DON-229/014
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:34:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Euskaldunak izateagatik mespretxatuak izan dira, ikastola sortu eta gero ere bai. Gizartea, orokorrean, euskararen kontra zegoen. Euskararen transmisioaren etena. Mespretxu horrek, harrotasuna ematen du gaur egun.

84. Lau urteko anaia, bonba batek hilda

- **Erref:** DON-229/017
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:35:26. **Bukatu:** 00:36:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Ipar Euskal Herria, arnagune handia izan zen euskaldunentzat. Kontxitarren anai zaharrenak, bonba batek hil zuen. Aitaren bi anaiek atzerrira ihes egin zuten eta bat ez zen Franco hil arte Euskal Herrira bueltatu. Familia askok, senideak galdu zituzten .

85. Mojei euskaraz alfabetatzen irakasten

- **Erref:** DON-229/019
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:37:12. **Bukatu:** 00:38:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Pasai Antxon ikastolan zebilenean, mojek deitu zioten, haiei euskarazko klaseak emateko.

86. Santa Maria elizan ezkondu zen

- **Erref:** DON-229/020
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:38:30. **Bukatu:** 00:39:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Donostian ezkondu zen, Santa Mariako elizan. Bertan ezkondu zen, bere ikasleak bertakoak zirelako. Pasaian izandako lehenengo bost ikastolako ikasleak ezkontzara gonbidatu zituen.

87. Lehenengo ikastoletako gurasoei eskerrak

- **Erref:** DON-229/022
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:40:06. **Bukatu:** 00:40:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Ikastolaren alde egin zuten lehenengo gurasoei eskerrak ematen die Kontxitik. Ausardia izan zuten haien haurrak ikastolara eramateagatik, nola aterako zen jakin gabe. Amei ere eskerrak ematen die.

88. Ikastolen sorreran, apaizen laguntza ezinbestekoa izan zen

- **Erref:** DON-229/023
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:40:41. **Bukatu:** 00:43:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Frankismo garaiaiko lehenengo ikastolen sorreran, apaiz batzuek laguntza handia eskeini zuten. Pan-Pin komikia, fraide kaputxino batek hilabetero eramaten zion etxera.

89. Euskara gabe ez gara inor

- **Erref:** DON-229/024
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:43:14. **Bukatu:** 00:45:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Geroz eta euskara gutxiago hitz egiten da kalean, nahiz eta jende gehiagok jakin. "Euskaldunak izanda, euskararik gabe ez dara inor".

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com